

marrantte

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN



Fernando Bernués, Isabel Herguera, Harkaitz Cano, Patxi Presa eta Uxue Razquin, atzo Donostian.

Literaturaren, ilustrazioaren eta antzerkiaren arteko mugak apurtu, liburutegiei gorazarre egiteko

'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez' album ilustratua eta antzezlanak aurkeztu dituzte

✦ Harri X. Fernández
 📷 Ruben Plaza

DONOSTIA — Fernando Bernués dramaturgoak, Harkaitz Cano idazleak eta Isabel Herguera zinemagile eta ilustratzaileak antzerkiaren, literaturaren eta ilustrazioaren arteko mugak apurtu nahi izan dituzte, liburutegiei "gorazarre" egiteko. *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez* izena du Canok idatzi eta Bernués zuzendutako antzezlanak; eta,aldi berean, lasartearrak idatzi eta Herguerak marraztutako haurrentzako album ilustratua ere bada. Halere, guztiaren gainera ezer izatekotan, metafizikozko artefaktua da. Hiru egi-

leek, Ereingo editore Uxue Razquin eta Koldo Mitxelena Kulturuneko zuzendari Patxi Presarekin batera, proiektu "berezi" horren berri eman zuten atzo, Donostian.

Bernués azaldu zuenez, guztiaren jatorrian antzerki obra bat egiteko ideia zegoen: gertakari tragiko baten ondorioz, literaturarekin zerikusia duten aipu zifratuz beteriko papezko hegazkinak bidaltzen dizkio leihotik behera aita batek, Oihana izeneko hamar urteko alabari. Horren aurrean, Agata izeneko liburuazain baten laguntzarekin, erreferentziak topatu beharko ditu liburuaren artean alabak. "Bila zoazen liburuaren ondoan izan ohi da behar duzun libu-

rua", hausnartu zuen Canok. Aldi berean, etxeko apaletatik liburuak desagertzen diren garaiotan, obra honekin liburutegien "gorazarre" egin nahi izan duela nabarmendu zuen. Horretarako, gainera, literatura unibertsaleko zenbait autoreren lanen artean mokaduak hartu ditu, Antonio Skármentaren *Nerudaren postaria* nobelari Mario Jiménez izeneko pertsonaiak poeta txiletarraren olerkiak hartzen zituenean bezala. Poemak —eta testuak orokorrean— ez direlako idazten dituenaren jabetza-koak, "behar dituztenenak baizik".

Antzezlanak euskaraz, gaztelaniaz, valentzieraz eta galizieraz taularatuko da eta kasu guztietan zuzendaria Ber-

nués izango bada ere, tokian tokiko konpainia batek garatuko du bakoitza, bere antzezle propioekin. Euskarazkoaren kasuan, Tanttakak taularatuko du, antzezleak Miren Arrieta (Oihana), Asier Hernández (aita) eta Sara Cozarren (Agata) izango direlarik. Gipuzkoan Foru Aldundiak bultzatutako Eskola Kultura ekimenaren baitan estreinatuko da abenduaren 14 eta 15ean Santa Teresa komentuan; hamar saio eskainiko dira, nagusiki zortzi eta hamabi urte bitarteko ikasleei zuzendutakoak. Abenduaren 16rako programatutako publiko orokorarentzat izango dira.

Antzezlanaz hitz egin dugu, bai; baina, zer da, orduan, Ereinek argitara-

tutako album ilustratua? Obraren gidoia, agian? Ez. Antzezlanak liburu aurkezpen batekin hasten da. Oihana heldu batek bere gazte garaiko pasadizo batzuetan oinarritutako album ilustratu bat aurkeztu du bere babesleku kuttun batean, liburutegi batean, hain zuzen ere. Gerora, liburu horretan bertan kontaktatzen direnak azalduko dizkigu antzezlanak. Jakina, obrarako liburu bat behar zuten eta atrezoak egin baino, benetakoa izatea otu zitzaion. Herguerarengana jo zuten, albumeko zein antzezlaneko irudiak ilustratu zitzaion. Proposamena *Sultanaren ametsa* amaitzen ari zela iritsi zitzaion donostiarrari. Lan karga zela eta estatusunak pasatzen ari bazen ere, baiezkoa eman zien, proiektu honek, hein batean, bere pelikularekin erlaziorik bazuelako: "*Sultanaren ametsa* liburu bati egindako omenaldia da, hau, berriz, liburu askori egiten dioguna".

Haren ekarpena izan da papezko edizioaren formatu etzana edo "zinematografikoa" izatea. Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez, bi pertsonak batera irakurtzeko moduko liburu da, seme-alabei ohean ipuinak kontaktatzen dizkieten gurasoen esperientzia aldarrikatuz. Izan ere, horixe baita literaturazaletasuna pizteko lehenetarikoa. ●